



Plastikoen birziklapena Alemanian

Ikatza olio edo gas bihurtzeko Alemanian eraiki ziren planta kimiko zaharrak plastikoa birziklatzeko erabiltzen ari dira gaur egun. Baina ekologistek diotenez, neurri horrek adierazten duena honakoa da: gobernua garrantzitsuagotzat dituela interes ekonomikoak ingurugiroa baino. Hauen ustez, birziklapenean diru asko ari dira inbertitzen, baina hondakinak sortzearen aurka gobernua oso gutxi egin du.



Alemania ekologistek diotenez, birziklapenean diru asko ari da inbertitzen gobernua, baina ez du horrenbeste egin hondakinak ez sortzeko.

Birziklapenerako erabiltzen ari diren planta zahar hauek batez ere Alemaniako Ekialdean porrot egin zuten fabri-

kak dira. Alemania batu ondoren, irtenbide bat eman behar zitzaion eta birziklapenerako egokitu zituzten. Erabaki honekin ez dirudi jende guztia ados dagoenik. Ekologisten protestez gain, zientzilari batzuek planta hauetan ikatza erabiltzen segitzen dutela esan dute, eta ikatza plastikoarekin nahastuta energia primario gehiegi kontsumitzen dela. Hori dela eta planta batzuetan plastiko-hondakinak birziklatzeko sistema berri eta merkeagoak ipintzen ari dira.

Poluitzaileak jaten dituen bakterioa

Beti lanean ari diren mikroorganismoek oraingoan aireko poluzioari aurre egin beharko diote. EEBBtan Energy Biosystems Corporation enpresako Kevin Gray jaunak egindako ikerketen arabera, lurreko bakterio batek parte har dezake petrolioaren errefinatzen denean, honek dituen sulfuro-konposatuak "garbitu" ahal izateko. Izan ere, konposatu horiek motorean erretzen direnean atmosferara sulfuro dioxidoa botatzen da. *Rhodococcus* izeneko bakterioak, ordea, konposatu kimiko horiek deskonposatu eta elementu geldoak emango lituzte. Erregaiaren ahalmena ez litzateke batera murriztuko.



Argazkiko hegaztiak, mozorrodun eroak, txito bat hazten du kumaldiko. Txito nagusiak gainerako txitoak habiatik botatzen ditu gurasoen laguntzarekin.

Kain eta Abel hegaztietan ere

Tropikoetako kostan bizi den mozorrodun eroa hegazti handia da, baina badu berezitasun bat. Arrautza hautsi eta txitoa jaio orduko, txito zaharrenak habiatik bota egiten du. Gainera, gurasoek Kain txikiari bere lana erraztu egiten diote, bi txito haztea lan handiegia delako. Estrategia horrekin ondorengoak osasuntsu eta indartsu izatea nahi da, eta ez ugari izatea. David Anderson bikote bat bere bi txitoak haztera behartuta azterketa egiten ari da.

Gizakia adierazle biologikoa

Stuart Leiderman adituak esan duenez, "babes ekologikoak dira ingurugiro-kalitatearen adierazle biologikoak"; EEBBtan egin berri den

ikerketa batek gainera, egiaztatu egin du baieztapen hori. Gizakiak ingurugiroan sortutako kalteen ondorioz, 25 milioi pertsona inguruk utzi behar izan ditu bere etxea, lurrak eta familia. Itxura guztien arabera, hemendik 50 urtera "migrazio ekologiko" hauek gehiago nozituko ditugu; "errefuxiatu ekologikoak" izango dira gehienak.

Gizakiak ingurugiroan egiten dituen aldaketen eraginez milioika pertsonak emigratu behar izan du, "errefuxiatu ekologiko" bilakatuz.



Uholdeak, basamortutzea, izurriteak eta proiektu hidrogeologikoak izaten dira gehienetan emigrazioa eragiten dutenak. Txinan, adibidez, Yanzijiang ibaian egiten ari diren urtegia dela eta milioi bat pertsonak alde egin beharko du bere bizilekutik.

